

Büchner, Ludwig

Darmstadt-en jaioa 1824ean eta bertan hila 1899an, filosofo bezala ez du garrantzi handirik. Baina beraren idazkiak oso eztabaidatuak izan ziren filosofo eta zientzialarien taldeetan XIX. mendearen azken erdialdera Alemania-n eta beste zenbait tokitan. Horregatik, ez da erraza garai hartako filosofiaren historia ulertzea Büchner-en alde nahiz kontrako eztabaida hauek gogoan eduki gabe. Zientzian oinarrituriko *metafisika monista materialista da berea. Obrak: Kraft und Stoff, 1855 (espainieraz itz.: Fuerza y materia, 1855); Natur und Geist, 1857; Darwinismus und Sozialismus, 1894.

Buda, Gautama

K.a. 563. urte inguruan jaio zen eta 483. urte inguruan hil. Budismoaren fundatzailea. Maisuaren irakatsiak Ananda ikasleak jaso zituen.

Budismoa

India-n sorturiko filosofi *sistema nas-tika edo heterodoxo nagusietakoa. Siddhārtha Gautama-k, *Buda-k, (K.a. 566-486) India-n sortu eta gero Asia-ko Ekialdera eta Mendebaldera zabaldu zen mugimendu erlijiozko bezala hartzen da gehienetan. Baina erakitzaileak emandako irakatsiek filosofi eskola handi bati eman diote hasiera eta oinarria.

"Argitua" adierazten du "Buda" izenak; hersturaldi eta gogoetaldi luzeen ondoren giza *existentziaren *misterioa argitu zuelakoan eman zitzaion izen hori.

Direlako Lau Egia Jator hauetara laburbildu zuen bere argitzapena:

- Sufrimenduak gizakiaren bizitza osoa hartzen du. Dena da oinazea.

- Oinazearen sorburua guraria edo bizi-lehia da, existentziarekiko atxekipenari dagokion lehia batez ere.

- Lehia oro suntsitzea da oinaze guztien erremedioa; honek, ordea, zera eskatzen du: *karma osoa desegitea eta ekintza guztiak geraraztea. Horrela irekitzen da *Nirvana-rako atea.

- Nirvana-ra edo askapenera iristeko helpideak "Zortziko Bideak" irakasten dituen bideetatik zuzen jokatzen da.

Buda-ren irakatsiak *berraragitzapenarekiko irakatsia suposatzen du, zeinaren arabera, haserarik izan ez duen eta, gu askatu ezean, amairik izango ez duen etengabe bizi-aldizikloari lotuta bait daude bizidun guztiak.

Gu izaki zerutar bezala, ala gizaki bezala, ala haragirik gabeko *izpiritu bezala, ala *animalia edota *izaki infernutar bezala, jaiotzea karma-ren menpe dago, hau da, gure egiteen merituen ala demerituaren menpe. Izanaldi jakin batean gertatzen zaigu on eta txar guztia ere karma-ri zor zaio.

Bizidunen kontra egindako *bortxa da egiteetan bekatuzkoena.

Geroko budismoaren arabera, gizakiagan ez dago printzipio pertsonal beregainekorik, etengabe aldatuz dabiltzan fenomeno psikosomatiko multzoa besterik. Buda-k, berriz, zera irakatsi zuen: fenomeno horiek ez direla nire zerbait, ni ere ez naizela fenomeno horiek, eta horiek ez direla nire nortasuna. Beraz, ekintza enpiriko oro suntsitu beharra dago.

Nirvana zera enpiriko ororen haraindi dago; horregatik, izaki "askatua" ez dago inola ere definitzerik, nirvana-egoera definitzerik ez dagoelako.

Jainkoa bazterrerera utzi zuen Buda-k; beraz, *askapena ez datza Jainkoarekin behin-betiko bat egitean, eta bai guztiok barnean daramagun *errealitate esentzialera itzultzean.

Gauzen iragankortasuna nabarmendu zuen Buda-k: horixe omen da, hain zuzen, oinaze guztien oinarri ontologikoa.

Geroago, behingokotasun huts bezala aditu zuten iragankortasun hori: hau da, fenomenoak momentu-sail bat besterik ez dira, iragankortasunaren itxura ustela egiten dutenak, nahiz eta banandurik egon.

Erljiozko mugimenduaren barruan sortu ziren bi korronte handiez ("Ibilgailu Handia" eta "Ibilgailu Txikia" izenekoez) gain, lehenengoaren barruan bereziki filosofi eskola desberdinak sortu ziren: hala nola, Mādhyanika, hutsune unibertetsala irakasten duena, hau da, gauzek ez dutela izaera bere-nik; eta Yogātxara, gauzek beren izaera gogamenean bakarrrik dutela irakasten duena. Bi hauetatik sortu ziren Txinan beste hainbat sistema, bereziki Txan eskola, Japonia-ko *Zen eskolaren aitzindaria.

J. Pérez Remón/Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Ekialdetar filosofia.

Bueno, Gustavo

Logroño-n jaioa 1924ean. Oviedo-ko "Sistema filosofikoen historia eta Filosofiaren oinarriak" deitutako katedraren jabe da 1960az geroztik. *Materialismo dialektikoa berroinarritzen saiatu da ikuspegi ez-ortodoxo batetik aztertuta, batez ere praktika